

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4535

AGINDUA, 2021eko uztailaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntza-deialdia egiten baita EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuentzat, 2021-2022 ikasturtean STEAM arloko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak garatzeko.

UNESCOk Science Education izeneko programan ezarri du zientziaren eta teknologiaren arloko gaikuntza funtsezko elementua dela ekonomia eta gizartea garatzeko. Hori horrela, gaikuntza hori eraikitzeke, ezinbestekoa da, haren ustez, zientziaren eta teknologiaren arloko hezkuntza sustatzea, hezkuntza-maila guztietan, bai eta gizarte osoaren alfabetatze zientifikoa hobetzea ere. Nabarmentzen du, halaber, gazteak –bereziki neskek– bultzatu beharra dagoela zientziaren eta teknologiaren arloko karrera profesionalak egin ditzaten.

2020rako Europako esparruak (Horizonte 2020) ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak elkartzeko asmoari erantzuten dio hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruak, hezkuntza eta prestakuntzari dagokienez eta, aldi berean, gure testuinguruaren berezko hezkuntza-erronkak jasotzen ditu, eta gaitasunak eskuratzea sustatzen du. Horizonte Europe, 2021-2027 aldirako EBren Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programa, Horizon 2020 programaren luzapena da, eta hiru oinarri nagusi ditu: lehenengoa, zientzia bikaina; bigarrena, munduko erronka nagusiei aurre egitea, osasunaren, zahartzearen, segurtasunaren, kutsaduraren eta klima-aldaketaren arloetan, baita antzeko beste arlo erabakigarri batzuetan ere; eta hirugarrena, berrikuntza sustatzea.

Oinarri horiek aintzat hartuta, abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak (Oinarrizko Hezkuntza-ren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena) oinarrizko gaitasunen garapena jasotzen du, zeharkakoena zein diziplinazkoena, eta, berrikuntzaren aldeko apustu eginez, STEAM proiektuak garatzea proposatzen du, berrikuntza, sormena, diseinua eta arazoak konpontzea xedetzat hartuta, STEAM (Zientziak, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) diziplinei dagozkien gaitasunak errazago garatzeko eta zeharkako gaitasun guztiak eskuratzeko.

2018ko ekainean, STEAM Euskadi hezkuntza-estrategia aurkeztu zen, zeinaren bitartez helburu hauek sustatzen baitira:

- Heziketa eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea hezkuntza-etapa guztietan, horretarako eragile sozioekonomikoak ere inplikatur.
- Bokazio eta helburu profesionalak inspiratzea STEAM esparruan, arreta berezia jarriz neska ikasleengan, etorkizuneko erronken aurrean prestakuntza egokia jaso dezaten.
- EAEko herritarren artean dibulgazio eta kultura zientifiko-teknologikoa sustatzea.

STEAM estrategia horren helburua diziplinarteko proiektuak garatzea da, ikasgai horien curriculum-edukiak aldi berean eta era integratuan ikasi ahal izateko eta zeharkako gaitasunak garatzen direla bermatzeko, dagozkien diziplinakoez gain, pentsamendu zientifiko, teknologiko, artistiko eta matematikoaren kultura sustatzeko eta ikasleak bultzatzeko erabakiak hartzeko ebidentzian oinarritutako arrazoiketa erabiltzera, diziplina horiekin lana sustatzeko eta ikaslea ardatz duten hezkuntza-prozesu sortzaile eta berritzaileak gauzatzeko beharrezkoa den aldaketa metodologikoa sustatzeko. Horretarako, metodologia aktiboak baliatuko dira, hala nola lankidetzak, arazo

konponketa eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza (PBL/POI), eta ekintzailtza, pentsamendu kritikoa eta sormena sustatzeko ahalegina egingo da.

STEAM ekimenek edo proiektuek diziplinarteko ikuspegia garatu nahi dute irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan, ikasgai horien curriculuma garatzea ahalbidetzen duten eta ikasleentzat adierazgarriak diren eguneroko bizitzako testuinguruak eta egoerak txertatuz, eta beharrezkoak diren tresna digitalak eta teknologikoak erabiliz, baita pentsamendu konputazionala ere; izan ere, azken horrek konputazio-zientziak eta pentsamendu kritikoa baliatuta arazo konplexuak ebatzea ahalbidetzen du.

Orain arte sustatutako neurriak eta kanpoko ebaluazioan bildutako (PISA ebaluazioa eta diagnostikorako ebaluazioak) konpetentzia zientifiko eta matematikoko emaitzak hobetzeko neurriak kontuan hartuta, Hezkuntza Sailak STEAM proiektuak aurkezteko deia egiten die itunpeko ikastetxe pribatuei, helburu hauekin: pentsamendu zientifiko, teknologiko, artistiko eta matematikoaren kultura suspertzea, eta ikasleak, erabakiak hartzeko orduan, ebidentzietan oinarritutako arrazoi-keta erabil dezaten bultzatzea, arazoak ebatziz (PBL) eta lan kooperatiboa erabiliz.

Sailaren 2021erako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzen duen Hezkuntzako sailburuaren aginduan sartzen dira agindu honetan araututako dirulaguntzak.

Horiek horrela, bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako xedapenekin, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. tituluaren ezarritako xedapenekin (Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren dirulaguntzak arautzen dira titulu horretan), eta kontuan hartuta otsailaren 11ko 1/2021 Legeak (2021eko Aurrekontu Orokorra onetsi zituen) onartutako kredituen arabera aurrekontu-zuzkidura nahikoa dagoela, eta aplikazio orokorreko bestelako xedapenekin bat etorri, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuei dei egitea, 2021-2022 ikasturtean STEAM (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics) ereduko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak egin ditzaten.

2. artikulua.– Onuradunak.

Honako hauek izan daitezke deialdi honetan jasotako dirulaguntzen onuradunak: Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuak, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan eskolak ematen dituztenak.

3. artikulua.– Deialdiaren kreditua.

1.– Helburu hori lortzeko, 343.750 euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura.

2.– Zuzkidura hori honela banakatuta geratzen da, horiek gauzatuko diren lurralde historikoen arabera: 55.000 euro Araban, 175.312,50 euro Bizkaian eta 113.437,50 euro Gipuzkoan.

3.– Nolanahi ere, baimena ematen da 11. artikuluan deskribatutako ebaluazio-batzordeak lurraldeen arabera banaketa alda dezan, aukeratutako eskaeren itunpeko laguntzen batura ez bada

iristen aurreikusitako esleipenera lurraldeetako batean. Kasu horretan, sobera dagoen dirua puntuazio orokor altuena duen ikastetxeari/duten ikastetxeei emango zaio/zaie, aurrekontu guztia amaitu arte.

4. artikulua.– Ikastetxeen baldintza orokorrak eta haien egiaztapena.

1.– Prozeduran parte hartzeko, eskabidea behar bezala eta epean aurkeztu beharko dute ikastetxeek, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa, bat etorritik deialdi honen 10. artikuluan xedatuarekin.

2.– Horrez gain, ikastetxeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) STEAM (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics) hezkuntzako berrikuntza-proiektua aurkeztea, agindu honetako 5.2 artikuluan zehaztutako puntuak azalduta.

b) Proiektuaren jarraipena egiteko koordinatzaile bat izendatzea.

c) Irakasleentzako prestakuntza-jarduerak ematea gastu gisa egotziz gero, proiektua egiteko behar diren irakasleen berriarazo konpromisoa izan beharko da eta bertan adierazi beharko dute dirulaguntzaren xede den eta ikastetxeak antolatu duen prestakuntzan parte hartuko dutela.

3.– Honako egoeraren batean dauden ikastetxeek ezin izango dute laguntza eskatu, eta ezin izango dira erakunde onuradun izan:

– Ikastetxea Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikularen 2. eta 3. zenbakietan azaldutako egoeraren batean egotea.

– Dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiboa edukitzea, eta horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta egotea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak barne.

– Ikastetxe eskatzaileek egunean ez izatea dirulaguntzak itzultzeko ordainketa-betebeharrak; betekizun hau eskatuko da bai onuradun bihurtzeko bai emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izaten segitzeko.

Hori dela eta, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dute erakundeek, erakunde onuradun izateko debekua dakarten egoeretan sartuta ez daudela justifikatzeko; dena dela, horrek ez du balioko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela justifikatzeko.

4.– Erakunde onuradunei dirulaguntza horiek emateko –eta, hala badagokio, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

5.– Dirulaguntzaren eskabidea aurkezteaz batera eskatzaileak laguntza ematen duen organoari baimena ematen dio zuzenean egiazta dezan laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela; izan ere, organo kudeatzaileak automatikoki eta behar beste aldiz egiaztatuko du hori, eta ez du eskatzaileen baimenik beharko horretarako, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua

aplikatuz. Erakunde eskatzaileak berariaz egin diezaioke uko baimen horri, eta, hala eginez gero, ziurtagiria aurkeztu beharko du, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 22. artikuluan azaltzen den eran.

6.– Eskabidean sartutako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, hauek egiaztatuko dira:

- Ez dela eskuratu helburu bererako inolako dirulaguntzarik, laguntzarik, diru-sarrerarik edo bestelako bitartekorik ezein administrazio zein erakunde publiko nahiz pribatutatik.
- Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigor penal edo administratiborik, eta ez dagoela horretarako ezgaitzen duten lege-debekuetan sartuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexuagatiko diskriminazioan erortzeagatik gertatutakoak barne.
- Egiazkoak direla eskabidean eta horrekin batera aurkeztutako agirietan adierazitako edukiak.
- Ikastetxeak betetzen dituela dirulaguntza hauen onuradun izateko betekizunak, betiere indarrean den legedian jasotzen direnak.
- Ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan zehaztutako egoeretako batean ere.
- Eskabidea egin duen ikastetxeko ordezkari-organorenak badakiela zer proiektu aurkeztu den eta onartu egin duela.
- Proiektuaren datuak bete dituela hemen: www.euskadi.eus/servicios/1115601

7.– Deialdiko dirulaguntzen onuradun bihurtzeko eskatutako betekizunak bete egin behar dira emandako dirulaguntza likidatu arte; beraz, egiaztatuko da bete egiten direla dirulaguntza emateko orduan eta ordainketak egiteko orduan.

5. artikulua.– Proiektuaren ezaugarriak.

1.– Ikastetxe bakoitzak STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektu bakarra aurkeztuko du, eta bost diziplinetako gutxienez biren hainbat ikuspegi barne hartu ahal izango ditu modu bateratuan, STEAM eredu bokazioak eta helburuak genero-ikuspegiarekin sustatuz.

STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuek oinarri hartuko dituzte bizitzaren eremuei (pertsonala, soziala, globala eta lanekoa) lotuta erronka edo arazo bat sortzen duten egoerak; eta honako printzipio hauek kontuan hartu beharko dituzte: Ikasgaien irakaskuntza integratua, STEAM ereduarekin lotutako konpetentziak garatzea, ikerketan oinarritutako ikaskuntza, genero-ikuspegia eta berdintasuna, eta STEAM erako bokazio eta nahi profesionalak sustatzea.

Hortaz, STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuek generoen arteko berdintasuna sustatu beharko dute, eta ikasgeletan hainbat modutara txertatu beharko dute genero-ikuspegia, hala nola rolak era berdinean banatuz, zientziaren zein ingeniartzaren arloko lanbideen inguruko estereotipoak desaginez, genero-berdintasuna bultzatuz, pertsoneri era berdinean garatzeko aukera ematen dieten espazioa sortuz, etab.

STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak adierazi beharko du zein irakaslek parte hartuko duten proiektuan, eta zer diziplina emango duten.

Proiektu bakoitzak gutxienez 30 ordu izango ditu aurreikusita garatzeko eta gauzatzeko. Proiektuak irakasleek hori egiten eman beharko dituzten ordu kopurua zehaztuko du, eta horretarako

kontuan izango dira ikasleekin proiektua garatzeko behar diren orduak zein koordinazioa eta ebaluazioa egiteko behar diren orduak.

Hezkuntza Sailak STEAMGUNE web-orria jarri du ikastetxeen esku. Orri horretan informazio interesgarria ematen da STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak diseinatzeko: <https://steamgune.euskadi.eus/es/inicio>

2.– Proiektuan puntu hauek sartuko dira:

- a) Proiektuaren edukiaren, ikasgaien curriculum-dukien eta landu beharreko kompetentzien definizioa.
- b) Erabili beharreko estrategia metodologikoa.
- c) Proiektua garatzeko etapen, zikloen edo ikasturteen definizioa.
- d) Lortu nahi diren helburuen planteamendua.
- e) Ikasleen oinarrizko kompetentzien garapenean lortutako mailaren eta proiektuko helburuen betetze-maila ebaluatzeko ereduaren definizioa.
- f) Erabili beharreko material eta baliabide pedagogikoen plangintza eta justifikazioa.
- g) Sistemaren deskribapena eta proiektuaren beraren jarraipen- eta ebaluazio-irizpideak, baita lorpenen adierazleak eta horien denboralizazioa ere (kronograma).
- h) Neska ikasleengan STEAM arloetako bokazio zientifikoak sustatzeko prestatutako jardueren eta ekintzen deskribapena.
- i) Ikasleengan oro har STEAM arloetako bokazio zientifikoak sustatzeko prestatutako jardueren eta ekintzen deskribapena.
- j) Proiektua garatzeko ikastetxeak aurreikusitako koordinazio- eta antolakuntza-ekintzen zehaztapena. Proiektuaren koordinatzailea zergatik izendatu den azaltzen duten arrazoiak (prestakuntza, esperientzia, ikastetxearen ezagutza eta STEAM kompetentziekin lotutako merezimenduak).
- k) Ikastetxean eta gizartean proiektuaren zabalkundea egiteko eta hezkuntza-komunitatearen eta familien partaidetza aktiboa sustatzeko neurriak.
- l) Proiektua egiteko aurreikusitako gastuak zehazten dituen aurrekontua.

3.– COVID-19aren epidemiak eragindako egoeraren bilakaera ziurtasunez aurreikusi ezin denez, ikastetxeek proiektua aurrez aurrekoa ez den irakaskuntzara egokitzeko aukera aurreikusi behar dute.

4.– Hezkuntza zientifiko, teknologiko, matematiko eta artistikorako berrikuntza-proiektuaren datu teknikoak eta aurrekontu-datuak behar bezala bete beharko dira, ikastetxeek esteka honetan eskura duten aplikazio informatikoan: www.euskadi.eus/servicios/1115601

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Zuzkidurak zer proiektu finantzatzeko eman diren kontuan hartuta, proiektu horiek garatzeari eta gauzatzeari zuzenean lotutako gastuak ordaintzeko soil-soilik baliatuko dira, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua beteko dute.

2.– Gastu gisa egotzi ahal izango dira proiektua egiteko ezinbestekoak diren materialak erosteko gastuak.

3.– Informazio- eta komunikazio-gailuak (IKT) erostea egotz daitekeen gastutzat onartuko da, baldin eta gailu horiek erabiltzea ezinbestekoa bada proiektua garatzeko, eta ikastetxeak aurkeztutako proiektuan hala azaltzen bada berariaz. Nolanahi ere, egozpena ezingo da izan aurkeztutako proiektuaren guztizko aurrekontuaren % 50etik gorakoa, betiere aurrekontuak ez badu gainditzen gehieneko 3.000 euroko zenbatekoa; kasu horretan, kontzeptu horrengatiko egozpena ezingo da izan 1.500 eurotik gorakoa.

4.– Halaber, gastutzat egotzi ahal izango dira ikastetxeak berak edo STEAM diziplinekin zerikusia duten beste erakunde batzuek antolatutako zientzia-dibulgazioko azoka, jardunaldi, lehiaketa edo topaketak antolatzeko gastuak edo horietan proiektuan parte hartzen duten ikasleek parte hartzeko gastuak. Kontzeptu horrengatiko egozpena ezin izango da izan aurkeztutako proiektuaren guztizko aurrekontuaren % 50etik gorakoa, betiere aurrekontuak ez badu gainditzen gehieneko 3.000 euroko zenbatekoa; kasu horretan, kontzeptu horrengatiko egozpena ezingo da izan 1.500 eurotik gorakoa.

5.– Gastutzat hartu ahal izango da irakasleentzako prestakuntza-jarduerak ematea, baldin eta prestakuntza-jarduera horiek ezinbestekoak badira proiektua garatzeko, eta, betiere, proiektuan inplikaturako irakasleek prestakuntza hori sailak aurreikusitako beste bide batzuetatik jaso ezin badute (Prest Gara, Berritzeguneko ikastaroak...). Nolanahi ere, kontzeptu horri egotz dakiokeen gehieneko zenbatekoa aurkeztutako proiektua garatzeko aurrekontuaren % 50 izango da, betiere aurrekontuak ez badu gainditzen gehieneko 3.000 euroko zenbatekoa; kasu horretan, kontzeptu horrengatiko egozpena ezingo da izan 1.500 eurotik gorakoa. 100 euroko muga ere ezarriko da eskola-ordu bakoitzeko. Atal honetan sartu ahal izango dira bai prestakuntza-jardueraren kostua (prestakuntza emango duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera), bai eskola-emailearen joan-etorriak, ostatuak edo mantenuak eragindako dietak, pertsona hori prestakuntza-erakundetik kanpokoa bada, betiere prestakuntza-saio horiek aurrez aurrekoak badira eta berrikuntza-proiektua garatzeko ezinbestekoak direla justifikatuta badago. Hizlariaren joan-etorriak, ostatuak edo mantenuak eragindako gastuei dagokienez, hemen ezarritako irizpide ekonomikoak hartuko dira kontuan: 121/2006 Dekretua, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko Dekretua hirugarren aldiz aldatzeko dena. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen joan-etorrietarako edo jan-edanetarako gastuak.

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztu beharko dira eskabideak, <https://www.euskadi.eus> egoitza elektronikoan, eta, horretarako hilabete izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Ikastetxe bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du. Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, aurkeztutako azkenekoa soilik hartuko da kontuan, eta gainerakoak ez dira onartuko.

2.– Eskabide-eredua (II. eranskina) egoitza elektroniko honetan egongo da eskuragarri: www.euskadi.eus/servicios/1115601

3.– Ikastetxe eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezakete, nahi duten moduan. Prozedura osoan, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezartzen den moduan.

Eskabidea egin ostean, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/> web-orriaren bidez egin beharko dira hura onartzeko edo ukatzeko ebazpena eman arte egin beharreko izapide guztiak, bai eta justifikazio-izapidea ere.

4.– Eskabideak oso-osorik betetzen ez badira, ikastetxeari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta, gainera, ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua araberako ebazpena eman ondoren.

5.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi hau zehazten duten baldintzak.

8. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Ikastetxe interesdunen titularrek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko baliabide elektronikoa erabiliz egingo dituzte eskabideak, kontsultak eta izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikoa arautzen dute Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak; ebazpen horren bidez, Platea E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartu zen.

3.– Eskabideen eta erantsi beharreko dokumentazioaren ereduak agindu honen eranskinetan daude jasota.

4.– Eskabideak bide elektronikoz nola izapidetu, zer dokumentazio-eredu erantsi eta deialdi honekin lotutako gainerako izapideak nola egin behar diren jakiteko xehetasunak honako helbide elektronikoa honetan daude eskuragarri: www.euskadi.eus/servicios/1115601

5.– Eskabidearen osteko izapideak, justifikazioa barne, honako helbide honetako Nire Karpeta atalaren bidez egin beharko dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

9. artikulua.– Proiektua aurrera eramateko laguntzak.

1.– Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak zaindu behar du STEAM berrikuntza-proiektua mar-txan jartzen dela; eta ikasketa-burutzak koordinatu behar du garapen guztia, edo, bestela, hala badagokio, irakasle bati eskuordetuko dio zeregin hori, eta irakasle horrek jardungo du koordinatzaile moduan. Hori eginez gero, irakasle hori bera arduratuko da aldian behin ikasketa-burutzari proiektuaren garapenari buruzko eta egindako ekintzei buruzko informazioa emateaz, eta zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango du horrekin zerikusia duten gaiak lantzen direnean.

2.– Ikastetxeak, bere burua antolatzeko autonomiaren barruan, koordinatzaileen eskola-ordutegiak egokitu ahal izango ditu, eskola-orduen kopuruari eta banaketari dagokienez, proiektuan duten funtzioarekin bateragarri egiteko; betiere, kasuan kasuko irakaskuntzen ikasturte hasierako zirkularretan jasotako araudia betez eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.

3.– STEAM berrikuntza-proiektuaren bat onartzen zaion ikastetxe orori izendatuko zaio Berritze-gunean erreferentziazko aholkulari bat gutxienez, eta hura arduratuko da, ikastetxean proiektua koordinatzeaz arduratzen den pertsonarekin batera, onartutako proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-lanak egiteaz.

10. artikulua.– Organo kudeatzailea.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak.

11. artikulua.– Ebaluazio-batzordea.

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat sortuko da. Bertan, bi sexueta ordezkariek egongo dira, eta gutxienez % 40ko oreka mantendu beharko da. Honako hauek osatuko dute balorazio-batzordea:

Presidentea: Etengabeko Ikaskuntzako eta Irakasleak Hobetzeko Zerbitzuaren arduraduna: Santos Palma Arnaiz.

Bokalak: Etengabeko Ikaskuntzako eta Irakasleak Hobetzeko Zerbitzuko bi teknikari. Bietako batek idazkari-lanak egingo ditu: Paula María Saenz De Ugarte Balza, Celia Luengo Ugidos.

Hezkuntza teknologikoaren eta hezkuntza zientifikoaren arloko Berritzegune Nagusiko gizon-aholkulari bat eta emakumezko aholkuari bat: Karlos Sukunza Pagola, Elvira González Aguado.

Ingurugelako aholkulari bat: Beatriz Antón Garramiola.

12. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura.

1.– Proiektuak I. eranskinean ezarritako balorazio-baremoaren arabera hautatuko dira. Kanpoan geratuko dira I. eranskinean, proiektuaren edukari eta plangintzari buruzkoan, agertzen den baremazioaren lehenengo atalean gutxienez 12 puntu lortzen ez dituzten proiektuak, eta baremazio osoaren baturan guztira 16 puntu lortzen ez dituztenak.

2.– Proiektuak egokiro baloratzeko, ebaluazio-batzordeak ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak eskatu ahal izango dizkie laguntza-zerbitzuei.

3.– Lurralde bakoitzean esleipen-prozedura bat egingo da finantza daitezkeen proiektuei laguntzak emateko, eta dirulaguntzak lehiaketa-prozeduraren bitartez emango dira. Aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, lehenetsiak finkatzeko, eta, horretarako, I. eranskineko balorazio-baremoa hartuko da kontuan. Honako hauek soilik hornituko dira diruz, betiere, agindu honek ezartzen duen gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta: 13.1 artikulua ezartzen duen gutxienezko puntu-kopurua lortzen dutenen artean puntu gehien eskuratzen dituztenak. Balorazio-fasean lortutako puntuazioari jarraituko zaio, goitik beherako ordenan, dagokion prozedurari esleitutako diru-kopurua agortu arte. Berdinketa badago, neska ikasle gehien dituen ikastetxeari emango zaio lehenetsuna, eta berdinketak jarraituz gero, ikasle bekadun gehien dituen ikastetxea lehenetsiko da.

4.– Ebaluazio-batzordeak egingo ditu ebazpen-proposamenak, eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari helaraziko dizkio. Proposamen horietan honako hauek ere jasoko dira: onartuak izan daitezkeen proposatzen diren proiektuen zerrenda eta haietako bakoitzari eman beharreko dirulaguntzaren proposamena. Halaber, kanpoan utzitako eskabideen zerrenda ere jasoko da, arrazoiak adierazita.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariak, ebaluazio-batzordeak egindako proposamena ikusita, behin-behineko ebazpena emango du eta ikastetxe onuradun bakoitzari emandako laguntzen zenbatekoa adieraziko du, edo, hala badagokio, laguntza ukatzei buruzko arrazoiak adieraziko ditu. Behin-behineko ebazpen hori bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziko zaie ikastetxe interesdunei. Eskatzaileek hamar egun izango dituzte, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, egokitze jotako erreklamazioak aurkezteko.

2.– Behin betiko ebazpenak behin-behineko ebazpenaren datu berak izango ditu, eta elektronikoki jakinaraziko zaie ikastetxeei, behin-behineko ebazpena argitaratzen denetik hilabeteko epean, gehienez.

3.– Behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan.

4.– Behin betiko ebazpena EHAAn argitaratuko da deialdia argitaratzen denetik sei hilabeteko epean gehienez, emandako dirulaguntzen publizitatea egite aldera. Epe hori bukatu eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazten ez bada, interesdunek ezetsizat jo beharko dituzte eskabideak, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

5.– Erakunde onuradunei dirulaguntza horiek emateko –eta, hala badagokio, ordaintzeko– ezinbestekoa izango da amaiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emanda dituzten izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen arloan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiei.

14. artikulua.– Ziurtagiriak.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak 30 prestakuntza-ordu ziurtatuko ditu, ofizioz, hautatutako berrikuntza-proiektuak garatuko dituzten ikastetxeetako irakasleentzat. Horretarako, irakasle bakoitzak proiektura xedaturiko ordu kopuruak ikastetxe bakoitzean egindako lanorduen % 80koa izan behar du. Hala ere, ikastetxe batek ikasturte berean proiektu-deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez, inoiz ez zaio irakasle berari emango 90 ordu baino gehiagoren ziurtagiririk Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzako deialdien barruan egindako prestakuntza-proiektuengatik.

15. artikulua.– Dirulaguntzen bateraezintasuna.

Dirulaguntza hauek ezin dira bateratu helburu bererako beste ezein laguntzarekin, iturri publikoetakoak nahiz pribatuetakoak izan.

16. artikulua.– Hautatutako ikastetxeen betebeharrak espezifikokoak.

Deialdi honetako dirulaguntzen ikastetxe onuradunek beti bete beharko dituzte Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua adierazitako betebeharrak, bai eta finantzaketaren izaera publikoak dakarren publikotasun egokirako neurriak hartzeko betebeharrak ere, lege beraren 18. artikuluan 3. eta 4. Zenbakietan jasotakoarekin bat:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, hamar eguneko epean –deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera– ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz uko egiten ez badute, onartutzat joko da dirulaguntza.

b) Zertarako ematen den dirulaguntza, bada horretarako erabiltzea; hau da, onartutako STEAM hezkuntzarako berrikuntza-proiektua eta bertako jarduerak egiteko erabiltzea.

c) Zonako Berritzegunearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin lankidetzan jardutea, proiektuarekin zerikusia duten aholkularitza-, ebaluazio-, jarraipen- eta kudeaketa-lanetan.

d) Ekonomia Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioak betetzeko eskatutako informazio guztia bidaltzea, deialdi honen kontura jasotako diru-zuzkidura dela eta.

e) Proiektua gauzatu izana justifikatzeko agiriak ezarritako epean eta moduan aurkeztea. Hala-ber, aplikazio informatikoan bertan ondore horretarako ezarritako jarraipen-inprimaki guztiak (Excel formatuan) beteko dira.

f) STEAM hezkuntzarako berrikuntza-proiektu bat egiteko dirua esleitzen zaien ikastetxeei dagokienez, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarekin eta unibertsitateekin elkarlanean arituko dira, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezzen laguntzeko (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetako praktiketako ikasleak onartuko dituzte, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterreko praktiketako ikasleak ere).

g) Berrikuntzarako prestakuntza-proiektu bat egiteko dirulaguntza jaso duten ikastetxeek konpromisoa hartuko dute hurrengo ikasturteko ikastetxearen urteko planean jasotzeko deialdi honetan onartutako proiektua martxan jarriko dela.

17. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Proiektuarekin lotutako diruz lagundu daitezkeen gastuen % 100 lagunduko dira diruz, gehienez ere 3.000 euro arte, betiere arestian ezarritako baldintzak errespetatzen badira.

2.– Dirulaguntzarako gastuak 2021eko irailaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartekoak izango dira.

3.– Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa % 50 izango da. Azpikontratazioa gauzatzeko, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 68. artikuluan oinarritzko arauen arloan xedatua bete beharko da.

18. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

Ikastetxe onuradunei eman beharreko dirulaguntzak bi epetan ordainduko zaizkie:

a) Lehendabizikoan, hautatutako parte-hartze proiektu bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 80; zenbateko hori esleipen-ebazpena jakinarazi ondoren ordainduko da, berariazko ukapenik egon ezean.

b) Bigarren ordainketa 2022an egingo da, hurrengo atalean aurreikusitako baldintzen arabera emandako dirulaguntza justifikatu ondoren egindako likidazioaren ondoriozko zenbatekoan.

19. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Gehienez ere 2022ko ekainaren 15a baino lehenago, proiektuaren garapenari, gauzatzeari, proposatutako helburuen betetze-mailari, gauzatutako jardueri eta ebaluazioari buruzko txosten bat eta proiektuak eragindako gastuen justifikazio-kontu erraztua aurkeztu beharko dituzte ikastetxe onuradunek, <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/> webgunean. Dirulaguntzen justifikazioa Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduari buruzko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan xedatutakoa izango da.

Justifikazioak bitarteko elektronikoetatik aurkeztuko dira, ikastetxeei zuzendutako atariaren bidez (www.euskadi.eus/servicios/1115601). Bertan, aplikazio horretan ezarritako inprimaki guztiak beteko dira (III. eranskina)

Proiektuaren garapen eta ebaluazioari buruzko txostenean, gainera, honako hauek jasoko dira inpaktuaren adierazle gisa: landutako materialen kopurua eta edukia; zenbat ikaslerengan izan

duen eragina; egindako prestakuntza-jardueren kopurua eta edukia; horietan parte hartu duten irakasleen kopurua eta ehunekoa; eta ea, prestakuntzaren barruan, praktikaren bat ezarri den ikasgelan.

Justifikazio-kontuan, jarduerak eragindako gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua jasoko da eta zerrendan hauek zehaztuko dira: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, data eta, ordainduta bada, noiz ordaindu zen. Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera eman bada, adieraziko da zer desbideraketa egon den aurrekontu hori oinarritzat hartuta, bai eta dirulaguntzako jarduera finantzatu duten bestelako sarreraren xehetasunak ere, zenbat eta nondik etorri diren adierazita.

3.– Hezkuntza Sailak justifikazio-kontuan aipatutako gastuen jatorrizko fakturak bidaltzeko eskatuko die STEAM berrikuntzarako prestakuntza-proiektu bat aurkeztu duten zortzi ikastetxe onuraduni (bi Arabakoak, hiru Bizkaikoak eta beste hiru Gipuzkoakoak), dirulaguntza egoki aplikatzen dela arrazoitzen duen ebidentzia jasotzeko.

20. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik eginez gero, jakinarazi egin beharko da eta, ondorioz, gerta daiteke dirulaguntzak eman dituen ebazpena aldatzea, betiere onuraduna izateko dirulaguntza-arauan ezarritako gutxieneko baldintzak errespetatuta. Proiektuari egoztekoak diren justifikatutako gastuek ez badute emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen, zuzkidura hori murrizteko ebazpena emango da eta, hala badagokio, sobera emandako zenbatekoa itzultzeko eskatuko zaio ikastetxe onuradunari.

21. artikulua.– Jarraipena eta ebaluazioa.

1.– Ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion Berritzeguneko batzorde pedagogikoak txosten bat egingo du ikasturtea amaitzean, aukeratutako STEAM hezkuntzarako berrikuntza-proiektuaren garapenaren ingurukoa. Txosten hori Etengabeko Ikaskuntzako eta Irakasleak Hobetzeko Zerbitzuari eta Hezkuntza Berriztatze Lurralde Burutzari igorriko zaio, eta ikastetxe bakoitzaren eskura egongo dira bertan.

2.– Proiektuaren garapenean, ikasturtean zehar, gorabehera esanguratsurik gertatuz gero, zonako Berritzeguneko zuzendaritzak Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari eta Lurralde Burutzari emango die horren berri, Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak behar diren neurriak har ditzan deialdi hau behar bezala bete dadin.

3.– Hezkuntzako Ikuskaritzak, ikastetxeei egindako bisitaldietan, kontrolatuko du zenbateraino betetzen den diruz lagundutako proiektua, ikastetxeko urteko planean jaso behar baita. Ez-betetzetik ikusiz gero, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

22. artikulua.– Ez-betetzearen araubidea.

1.– Dirulaguntzen pertsona onuradunek, nolahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargurako laguntza publikoak erabiltzeagatik ezartzen den zehapen-araubideari eutsi beharko diote, eta –Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoa aplikatuz– honako kasu hauetan, berriz, eman eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko dute, osorik edo partez, baita aplikatu daitezkeen legezko interesak ere (berandutze-interesa barne dela):

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2033 Lege Orokorraren 37. artikulua 1. zenbakian jasotako itzulketa-kausaren bat egoteagatik edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren

Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 91. artikulutik 93. artikulura bitartean jasotako itzulketa-kausaren bat egoteagatik.

b) Erakunde onuradunak dirulaguntza ez erabiltzea eskatu zen eta eman zen xede bererako.

c) Ez gauzatzea dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera.

d) Ez justifikatzea interesa erakutsi zuen xede jakinetarako aplikatu izana.

e) Oro har ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), agindu honetan edo dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako betekizunak.

2.– Itzulketarako, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedura beteko da, hargatik eragotzi gabe bidezkoak diren gainerako ekintzak; dekretu horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen. Aipatutako diru-kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

Baldin eta, proiektua egin ondoren, ikastetxeek ez badute justifikatzen esleitutako zuzkiduraren zenbateko bereko edo handiagoko zuzkidurari egotz dakizkiokeen gastuak egin izana, bigarren ordainketa esleitutako zuzkiduraren eta proiektuarekin lotuta egindako gastuaren arteko aldearen arabera egingo da. Alde hori negatiboa izanez gero, zenbateko negatibo hori itzultzeko prozesua hasiko da.

23. artikulua.– Datuen babesa, oinarrizko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: «Ikaskuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak».

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Ikaskuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardenta-suna/054300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?lang=eu&id=BOE-A-2018-16673>)

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten lagunek baimena ematen diote Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari beste erakunde publiko batzuetan egiazta dezan egiazkoak direla aurkeztutako dokumentuak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan aipatutako dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 30/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. tituluaren eta VII. tituluaren III. kapituluak; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako oinarritzko araudia, eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

Agindu honetan araututako laguntzek EBko Funtzionamendurako Tratatuen 107.1 artikuluan ezarritako eskakizun guztiak betetzen ez dituztenez, ez dira estatuaren laguntzat hartzen; beraz, ez zaio Europako Batzordeari jakinarazpenik egin behar.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 7a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

I. ERANSKINA

ESKABIDEAK EBALUATZEKO BAREMOA

1.- Proiektuaren edukia eta plangintza (Beharrezkoak diren puntuak gutxienez: 12)	Gehienez: 17 puntu
1.1. Proiektuan parte hartzen duten STEAM arlo/ikasgai kopurua.	Gehienez: 3 puntu
1.2. Proiektuan parte hartzen duten STEAM arlo/ikasgaien diziplinarteko tratamendua.	Gehienez: 2 puntu
1.3. Proiektuko arlo/ikasgaien curriculum-edukiaren garapen-maila.	Gehienez: 2 puntu
1.4. STEAM kompetentziak sustatuz lortu nahi diren helburuen planteamendua.	Gehienez: 3 puntu
1.5. Ikerketa zientifikoan eta/edo edozein estrategia metodologiko aktibotan oinarritutako planteamendu metodologikoa.	Gehienez: 3 puntu
1.6. Erabili beharreko material eta baliabide pedagogikoen plangintza.	Gehienez: 2 puntu
1.7. Bokazio zientifiko eta teknologikoak sustatzeko ekimenak, genero-ikuspegia txertatzeari arreta berezia eskainita.	Gehienez: 2 puntu
2.- Antolamendu-neurriak	Gehienez: 3 puntu
2.1. Ikastetxeak aurreikusitako koordinazio- eta antolamendu-neurriak.	Gehienez: puntu 1
2.2. Ikastetxeak berak edo STEAM diziplinekin lotutako beste erakunde batzuek antolatutako ekitaldiak antolatzea eta/edo horietan parte hartzea.	Gehienez: puntu 1
2.3. Beste erakunde batzuekin lankidetzan (unibertsitateak, online hezkuntza-proiektuak, Europako programak, berrikuntza-zentroak, zentro teknologikoak, enpresak, etab.).	Gehienez: puntu 1
3.- Proiektuarekiko inplikazioa eta proiektua zabaltzea	Gehienez: 3 puntu
3.1. Proiektuan inplikaturako irakasleak eta taldeak. Koordinatzailearen profila (prestakuntza, esperientzia, ikastetxearen ezagutza eta STEAM kompetentziekin lotutako merezimenduak).	Gehienez: 2 puntu
3.2. Proiektua zabaltzeko eta hezkuntza-komunitatearen eta familien parte-hartze aktiboa sustatzeko neurriak.	Gehienez: puntu 1
4.- Jarraipena eta ebaluazioa	Gehienez: puntu 4
4.1. Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko aurreikusitako neurriak, lorpenen adierazleak zehaztuta, eta horien denboralizazioa (kronograma).	Gehienez: puntu 2
4.2. Ikasleek kompetentziak garatzean lortutako maila ebaluatzeko aurreikusitako neurriak.	Gehienez: puntu 2
5.- Aurrekontua justifikatzea	Gehienez: puntu 1
5.1. Eskatutako aurrekontuak proposatutako jarduerekin duen koherentzia eta gehieneko zuzkidura ekonomikoarekiko duen egokitasuna.	Gehienez: puntu 1
6.- Emakumeen parte-hartzea	Gehienez: puntu 1
6.1. Parte hartu duten neska ikasleen portzentajea.	Gehienez: puntu 1
Gehieneko puntuazioa, guztira (Lortu beharreko gutxienezko puntuazioa: 16 puntu)	29 puntu

II. ERANSKINA

Eskabide elektronikoa - STEAM

Instrukzio-organoari zuzendua

IKASKUNTZAREN ETA HEZKUNTZA BERRIKUNTZAREN ZUZENDARITZA

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Ordezkarria

Identifikazio-dokumentua		Zenbakia	
Izena		Abizenak	
Sexua	<input type="radio"/> Gizona <input type="radio"/> Emakumea		

Proiektuaren datuak

Ikastetxearen
kodea

Eskatutako proiektuaren izenburua:

Eskatutako dirulaguntza
osoa:

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Elektronikoa: "Nire kudeaketak" ataleko jakinarazpenen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Bertara iristeko, identifikazio-modu elektronikoa bat behar da.

10 egun naturaleko epean jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, ulertuko da baztertu egin duzula; beraz, izapidea egindakotzat joko da, eta Administrazioak prozeduran aurrera segituko du.

Abisuak jasotzeko datuak

Posta elektronikoa

Eskuko telefona

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza

 Euskara Gaztelania**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**

Hau adierazten dut erakunde eskatzaileari dagokionez:

- Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko eta erakunde pribatuetatik.
- Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.
- Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.
- Egunean dauzka ordainduta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.
- Ikastetxe eskatzailearen ordezkartza-organo gorenak badaki zer proiektu aurkeztu den eta onartu egin du.
- Aplikazioan, proiektuari buruzko datuak bete ditut.

- Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan zehaztutako egoeretako batean ere.
- Indarrean dauden arauetan ezarritako betekizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetan eta honi gehitutako dokumentuetan adierazitako datu guztiak egiazoak dira.

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: "Ikaskuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren arloko laguntzak eta diru-laguntzak".

- Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- Helburua: Ikaskuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren arloko laguntzak eta dirulaguntzak.
- Legitimazioa:
 - Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
 - 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
 - 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Hartzaileak:
 - Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
 - Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria:
 - Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan: www.euskadi.eus/clusulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/050400-capa2-es.shtml
- Araudia:
 - Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)
 - 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673)

Baimena ematen dut dokumentu hauek kontsultatzeko:

Dokumentuaren izena	Zer egunetan eman den	Zer organotan eman den

Zer dokumentu eman diren

Dokumentu mota	Izena

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzea

Araudi aplikagarriarekin bat etorritz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ordaindu izanaren datuak (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia–GSDN)
Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)

- EZ DUT ONARTZEN prozedura honen organo izapidegileak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. art.).

Onartzen ez baduzu, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dituzu.

Honek elektronikoki sinatua:

--

III. ERANSKINA

STEAM PROIEKTUEN JARRAIPENA

IKASTETXEAREN MEMORIA - BALORAZIOA

IKASTETXEAREN DATUAK

Ikastetxearen izena								
Ikastetxearen kodea		Udalerria:						
Eredua(k)	<input type="checkbox"/>	A	<input type="checkbox"/>	B	<input type="checkbox"/>	D	<input type="checkbox"/>	H
Mailak	<input type="checkbox"/>	HAUR-H.	<input type="checkbox"/>	L.-HEZK.	<input type="checkbox"/>	DBH	<input type="checkbox"/>	BATX.
Irakasleak				Ikasgela kopurua	Ikasleak			
Emakumeak	Gizonak	Bestelakoak	Guztira		Emakumeak	Gizonak	Bestelakoak	Guztira
			0				0	

PROGRAMAREN ALDERDI OROKORRAK

Izenburua:										
Zer hezkuntza-etapatarako den		<input type="checkbox"/>	HAUR-H.	<input type="checkbox"/>	L.-HEZK.	<input type="checkbox"/>	DBH	<input type="checkbox"/>	BATX.	
Parte hartuko duten ikasleen ikasgelak						Proiektuan parte hartuko duten irakasleak				
HAUR-H.	L.-HEZK.	B.-HEZK.	BATX.	HHI	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Bestelakoak	Guztira	
					0				0	
Antolatuta al dira koordinazio-bilerak ikastetxean proiektua garatzeko?								<input type="checkbox"/>	Maiztasuna	<input type="checkbox"/>

PROIEKTUA GARATZEA

Jasotako esleipen ekonomikoa erabiltzea (zenbatekoa eurotan)				
Prestakuntza	Materialak	Joan-etorriak	Bestelakoak	Guztira
				0,00 €
Proiektua garatzeko eta egikaritzeko ordu kopurua				
<input type="text"/>				

GARATUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Garatutako prestakuntza-jardueren kopurua					<input type="text"/>
1	Izenburua				<input type="text"/>
	Prestakuntza-emaileak		Zenbat iraun duen (h)		Non eman den:
	<input type="text"/>		<input type="text"/>		<input type="text"/>
	<input type="text"/>		Kostua:		<input type="text"/>
	<input type="text"/>		Parte hartu duten irakasleak		
	Prestakuntzaren balorazioa		Emakumeak	Gizonak	Bestelakoak
					0
2	Izenburua				<input type="text"/>
	Prestakuntza-emaileak		Zenbat iraun duen (h)		Non eman den:
	<input type="text"/>		<input type="text"/>		<input type="text"/>
	<input type="text"/>		Kostua:		<input type="text"/>
	<input type="text"/>		Parte hartu duten irakasleak		
	Prestakuntzaren balorazioa		Emakumeak	Gizonak	Bestelakoak
					0

PROIEKTUAREN BALORAZIOA	
Proiektuko helburuen eta/edo ekintzen betetze-maila	<input type="text"/>
Proiektuaren alderdi azpimarragarriak	
<input type="text"/>	
Deskribatu zer inplikazio izan duen proiektuak hezkuntza-komunitatean	
<input type="text"/>	
Dokumentu motaren bat egin bada, gehitu hari buruzko deskribapen txiki bat	
<input type="text"/>	
Partekatu al da gauzatutako praktika klastroarekin ikasturtearen amaieran?	<input type="text"/>
Zer jarraipen izango du proiektuak hurrengo urtean?	
<input type="text"/>	

[Oharra: informazio gehiago gehi daiteke dokumentazio osagarriaren atalean]